

Ezpalak

JON TORNER

Katixa Agirre^k irabazi du X. Igartza saria, *Etxetik irten gabe* ipuin liburuaren proiektuari esker. Bestalde, Irati Jimenezek *Ezinen ostatura* eleberriak akzesita lortu du. Bi idazleek urtebete izango dute liburuak osatzeko. Agirrek 6.000 euroko beka jaso du eta Jimenezek 3.000 eurokoa.

Asier Serrano idazle eta musikari eibartarrak *Picassoren zaldia* (Elkar) poema liburua plazaratu du. Serranok "amodioaren eta iraultza-aren inguruan dagoen hiztegiari buelta bat eman eta desmitifikatzea" bilatu du: "Autokritika egin eta bestearen lekuan jarri behar da. Uste dut hori dela herri honetan falta dena".

Ane Gabarain eta Lierni Fresnedo aktoreek *Eguneko menua / Menu del día* antzezlan estreinatu zuten hilaren 16an. Marilia Samper andaluziarrak idatzi du Francisco Montesek zuzendutako obra hau. Egunerokotasunak sortzen dien frustrazioa ahaztu nahi duten Pepi eta Txeloren papera betetzen dute Gabarainek eta Fresnedok.



Dora Salazar artista altsasuarrak *Hegalak-korazak* erakusketa paratu du Donostiako Okendo kultur etxean. 1995 eta 2005 urteen artean sortutako metalezko eskulturak bildu ditu bertan. Urriaren 30a arte ikusgai izango den erakusketaren harira, Salazarrek *Tener alas* hitzaldia eskainiko du urriaren 3an; 10ean, berriz, erakusketako obrei buruzko azalpenak emango ditu.

Maidier Lopez artista donostiarrak areto berri bat eta pareta bat sortuko ditu Bilboko Guggenheim museoan, urriaren 7an. *AdosAdos* du izena Lopezen proiektuak. Herri-tarren partaidetza ezinbestekoa izango da areto eta pareta berriak sortzeko. Aretoa sortzeko, lagun bakoitzak xafila bat hartuko du buru gainean; airetik ikusita, aretoa osatuko dute. Ondoren pareta altxatuko dute.

Picasso eta Dubuffet artean

Bilboko Arte Eder Museoan *Picasso eta Dubuffet artean*. Jean Planque *Bilduma* izeneko erakusketa izango da ikusgai azaroaren 18a arte. Basileako (Suitza) Beyeler galeriako aholkulari izandakoaren bildumako 130 obra bildu ditu erakusketak. Iragan mendeko artista ezagunen koadroak dira guztiak: Pierre Bonnard, Georges Braque, Paul Cézanne, Edgar Degas, Robert y Sonia Delaunay, Jean Dubuffet, Paul Gauguin, Juan Gris, Paul Klee, Fernand Léger, Manolo Millares, Claude Monet, Pablo Palazuelo, Pablo Picasso, Odilon Redon, Pierre-Auguste Renoir, Georges Rouault, Antoni Tàpies eta Vincent Van Gogh artisten obrak daude besteak beste ikusgai. Informazio gehiago: www.museobilbao.com.



Sekula baino bertsolari gehiago Gipuzkoako Txapelketan

HILAREN 22AN jarriko da abian Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa, *G puntua* lelopean, Orion. Urriaren 6ra bitartean sailkapen faseko bost saioak egingo dira, urriaren 20tik azaroaren 4ra bitartean final-laurdeneko bostak eta azaroaren 17tik abenduaren 1era bitartean hiru final-laurdenekoak. Finala abenduaren 16an izango da Donostiako Ilunbe zezen-plazan. Aurten 79 bertsolarik hartuko dute parte Txapelketan, sekula baino gehiagok. Horien artean ez da Maialen Lujanbio gaur egungo txapelduna egongo. Duela lau urteko finalean aritu ziren beste zazpi bertsolariak berriz bai. Txapelketaren nondik nora-koak www.gpuntua.com web gunean jarrai ditzakezue.

Ramon Bareak *Deian*: «Antzerkia eta dantzarekin, arte eszenikoekin, epe luzerako plana falta zen (Euskal Herrian). Ez zuten interesik pizten, ez zen beharrezkotzat ikusi, ez zen gure profesionalengan sinetsi eta orain ahulezia handiak dauzkagu sektorean eta, batez ere, profesionalen hutsune izugarria dugu sortze eta erabakitze guneetan. Kultura funtzionarizatu egin da».

Ramon Agirrek *Nabarran*: «Zinemaldiaren baitan, azken urteotan Euskal Zinemaren eguna egin izan da. Ospakizun nahiko xelebrea, zer ospatzen dugun eta zer hori ospatzeko modukoa ote den ez baitago oso argi (...) Saio polit batzuk egin ziren 80ko hamarkadan gure literatura zinematatzeko, baina gu


oso abilak gara bide berri bat ireki orduko ixten (...) Etikete-kin, globo handiak egiten dituzte batzuek. 800 *balas* euskal zinema bada, *Anpa Etxebeste* beste zerbait behar du izan. Hemen, hemengo zuzendari batzuek *cine español* egiteko eskubidea dute eta halaxe egiten dute».

Hasier Etxeberriak *Gaztelumendi.org* blogean: «Egiten dudana gehienaren bilduma izateko ere sortua da bloga, desordenatua baina paperekin. Horixe ditut neure artxiborik gehienak, sarean, munduko edozein ordenadoretik neure eskura: artikulak, gogoetak, iritziak, liburu osoak, proiektu hasi berriak... edonongo bazterretan ekin diezaioket lanari, hala erabakiz gero».

Julio Villarri, oinezko bidaiari eta nabigatzaile bakarti horri

Julio Villar: *iEh, petrel! eta Viaje a pie.* (Editorial Juventud).

Dirudienez, ez naiz kaleratu berri diren liburuen eta musikaren gomendio zale. Iraganaren nostalgiak harrapatuta bizi naiz, nonbait. Ene bizitzan atzera egin dut berriz ere. Gaztarora heldu aurretiko gure *mito* –lurtar– batekin topo egin dut udaldian. Egia esatera, eskuarki, nahiak eta gogoak badu zerikusia topatze horretan. Duela hogeita hamabost urte gure abenturaren grinan eta desioan Julio Villar Gurrutxaga agertu ohi zen: *Mistral* bela-ontzian munduaren bira egin zuen abentura



zalea, patuak nabigatzaile bihurtu zuen mendizalea. Esaterako, Marlon Brandok berak karelez kanpoko motorra oparitu ziola kontatzen genion elkarri. Hura bai mutila, Julio!

Lankide baten arrastoan iritsi berri naiz Julio ezagutza. Mendi eta mundu txango gidari segitzen baitu Pirinioetan edota penintsulan gaindi. Lurra du etxe beti ere, itsasoa eta lehorra bat bera izaki berarentzat. Julio ezagutu dut, oinez ezagutu ere. Eta gaztetan mirestu genuen *iEh, petrel!* liburua berrirakurri dut, baita ezezaguna nuen *Viaje a pie* ere.

“Mar, estrellas. Estrellas, mar. Mar y sol. Sol y estrellas. Estrellas y julio. Julio y mar y sol. Es mucho lo que tengo. (...) Ese soy yo, el que navega. El que quiere saber” idatzi zuen Ozeano Pazifikokoan, 25 urte zituela. Harrezkero –Julioren beraren hitzetan– itsasoko bere bakarraldiek lurra deskubritzera eraman zuten.

“Cuando me preguntan que dónde vivo, no sé qué contestar (...). Por eso casi siempre contesto lo mismo: ‘En Tarragona’. Y así, nadie me mira mal. Cuando me preguntan en qué trabajo...: ‘Marinero. Marinero de la mar’”. Oinez segitzen du Juliok, oinutsik eta banderarik gabe. “Dena garbi ikusi dut, baina baita iluna ere. Ez dezadan ahaztu!” gaztigatzen dio bere buruari: “El hombre libre es hermoso, de él es la vida. La libertad, ni se quita ni se concede (...). A veces intuyo lo que busco... Entonces soy libre”, diosku halaber.

Berrogei urte joan dira Julioren lehen berria izan nuenetik. 65 urte beteko du aurki. “No tengas prisa, Julio. No empieces a correr, que se acabará el camino y no sabrás que hacer”. Hitz hauek ez dira nireak, berak bere buruari idatziak baizik. Alabaina, joan berri den udaldian, Pirinioetan gindoazela, Posets-Maladetak mendikatean, hori bera esateko beharra izan nuen behin baino gehiagotan.

Zerua hain du etxekoa –izarrak alegia– ezen, zerbait aldatuko balitz segidan ohartuko zen Julio. Nik berriz, gaztetan galdu nuen izar bat hauteman dudala sentitu dut. Julioren hitzak paregabeak dira, bidea erakusten dutelako, norberaren bidea, noski. Buda txiki bat antzeman ote dut Juliorengan, agian.



MIKEL ASURMENDI



Herriko plaza 7 - 20150 Aduna
Tfnoa: 943 69 34 81

Eguneko menua 9,50 €

Asteburuko menua 18 €

Asteburutan karta